Getxo bizi ezazu

# ESTOLDERIAGATIKO TASA
TASA DE ALCANTARILLADO

## INFORMAZIO OROKORRA
INFORMACIÓN GENERAL

Euskadi Q 2006

**Kontrol Kodea**
Código de Control

**GEF-GET-ALCAN-01-DN.506 //**

| **ZERGA-EGITATEA**<br>**Noiz eskatzen da tasa?** | **HECHO IMPONIBLE**<br>**¿Cuándo se exige la tasa?** |
|---|---|
| Hona hemen tasaren zergapeko egitatea:<br>a) Udal jarduera, jarduera teknikoa eta administratiboa, udal-estolderiaren sarerako hartunea baimentzeko beharrezko baldintzak betetzen diren egiaztatzeko.<br>b) Iraitziak, euri-urak, ur beltzak eta hondakin-urak udalaren estolderia-sarearen bidez husteko zerbitzuak ematea eta horiek arazteko tratamendua ematea. | Constituye el hecho imponible de la Tasa:<br>a) La actividad municipal, técnica y administrativa, tendente a verificar si se dan las condiciones necesarias para autorizar la acometida a la red de alcantarillado municipal.<br>b) La prestación de los servicios de evacuación de excretas, aguas pluviales, negras y residuales, a través de la red de alcantarillado municipal, y su tratamiento para depurarlas. |
| **SORTZAPENA**<br>**Tasa eskatzeko zein data hartzen da kontuan?** | **DEVENGO**<br>**¿Qué fecha se tiene en cuenta para determinar la exigencia de la tasa?** |
| Tasa sortzen da eta ordaintzeko betebeharra sortzen da haren zergapeko egitatea den udal jarduera hasten denean; jarduera hori hasitzat joko da:<br>a) Bidezko hartune-lizentziaren eskaera egiten den egunean, subjektu pasiboak berariaz hala egiten badu.<br>b) Udal estolderiaren sareari benetan heltzen zaionetik. Modalitate horrengatiko tasaren sortzapena hartune-lizentzia lortu den ala ez kontuan hartu gabe gertatuko da, eta hargune hori baimentzeko instruitu daitekeen administrazio-espedientea hasteari kalterik egin gabe.<br>Udal estolderiaren sarerako hartunea ezarrita eta martxan jarrita, kuotak hiruhileko natural bakoitzeko lehen egunean sortuko dira. | Se devenga la tasa y nace la obligación de contribuir cuando se inicie la actividad municipal que constituya su hecho imponible, entendiéndose iniciada la misma:<br>a) En la fecha de prestación de la oportuna solicitud de la licencia de acometida, si el sujeto pasivo la formulase expresamente.<br>b) Desde que tenga lugar la efectiva acometida a la red de alcantarillado municipal. El devengo de la Tasa por esta modalidad se producirá con independencia de que se haya obtenido o no la licencia de acometida y sin perjuicio de la iniciación del expediente administrativo que pueda instruirse para su autorización.<br>Establecido y en funcionamiento la acometida a la red de alcantarillado municipal, las cuotas se devengarán el primer día de cada trimestre natural. |
| **SUBJEKTU AKTIBOA**<br>**Nork eskatzen du tasa?** | **SUJETO ACTIVO**<br>**¿Quién exige la tasa?** |
| Tasa hori Getxoko Udalak eskatuko du, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren bitartez, higiezinak udal-mugartean daudenean, sarerako hargunea baimentzen denean edo sarea ezarrita dagoenean. | Esta tasa será exigida por el Ayuntamiento de Getxo, a través del Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia, cuando los inmuebles se encuentren ubicados dentro del término municipal, se autorice la acometida a la red o esta esté establecida. |
| **SUBJEKTU PASIBOA**<br>**Nori eskatzen zio tasa?** | **SUJETO PASIVO**<br>**¿A quién se exige la tasa?** |
| Sarerako hartune-lizentzia ematen denean, finkaren jabari erabilgarriaren jabeari, gozamendunari edo titularrari. Sarerako hartunea badago, errentariei ere bai, edo baita prekarioan daudenei ere. | Cuando se trate de la concesión de licencia de acometida a la red, el propietario, usufructuario o titular del dominio útil de la finca. En el caso de que ya exista la acometida a la red, también los arrendatarios o incluso en precario. |
| **ZERGA-KUOTA**<br>**Zenbat ordaindu behar da zerga honen ondorioz?** | **CUOTA TRIBUTARIA**<br>**¿Cuánto se paga por la tasa?** |
| Tasaren zerga-kuota zein den jakiteko, Zerga Ordenantza kontsultatu behar da. Hiruhileko bakoitzeko gutxieneko fakturazio bat dago. | Para conocer la cuota tributaria de la tasa debe consultarse la Ordenanza Fiscal. Existe un mínimo de facturación por trimestre. |
| **KUOTA MURRIZTUAK**<br>**Tasaren kuotan badago deskonturen bat?** | **TARIFAS REDUCIDAS**<br>**¿Existe algún tipo de reducción sobre la cuota de la Tasa?** |
| Bai. Getxoko Udalak onartuta ditu kolektibo hauei aplikatu beharreko tarifa murriztuak: (bateraezinak elkarren artean. Bat baino gehiago badaude, onuragarriena aplikatuko da).<br>1. **Lanbidearteko gutxieneko soldatari dagozkion urteko diru-sarrerak (1,3 euro) baino txikiagoak lortzen dituzten zergadunei** aplikatu beharreko tarifa. Inguruabar hori urtero justifikatu beharko dute, urtarrilean, dagozkion egiaztagiriak erantsita: 0 euro.<br>2. Bi urtez aplikatu beharreko tarifa murriztua, 225.000 eurotik beherako katastro-balioa duten lokaletan **enpresa- edo merkataritza-jarduerak hasten dituzten zergadunei** jardueraren aurretiko jakinarazpena egiten zaienetik edo, hala badagokio, ireki dutenetik zenbatzen hasita, eta ekintzaile berriek bultzatuta, Getxolanek gainbegiratuta eta aldeko txostena emanda. Lehenengo urtean, % 75eko murrizketa aplikatuko zaio dagokion tarifa orokorrari. Bigarren urtean, dagokion tarifa orokorraren % 50ekoa izango da murrizketa.<br>3. Indarreko legeriaren arabera **familia ugariaren titular diren subjektu pasiboei** aplikatu beharreko tarifa murriztua, familia-errenta estandarizatua 40.000 eurokoa edo hortik beherakoa denean. Tarifa-murrizketa hori familia ugariaren ohiko etxebizitzari soilik aplikatuko zaio eta, horretarako, kide guztiek etxebizitza horretan erroldatuta egon beharko dute.<br>Tarifa murriztuak aplikatzeko baldintzak ezagutzeko, Ordenantza Fiskala kontsultatu behar da. | Sí. El Ayuntamiento de Getxo tiene aprobadas las tarifas reducidas aplicables a los siguientes colectivos: (Incompatibles entre sí. Si concurren varias se aplica la más favorable).<br>1. Tarifa aplicable a **aquellos contribuyentes que obtengan ingresos anuales inferiores a los que correspondan al salario mínimo interprofesional por 1,3**, circunstancia que deberán justificar anualmente, en el mes de enero, adjuntando la documentación acreditativa correspondiente: 0 euros.<br>2. Tarifa reducida aplicable durante dos años, contados a partir de la fecha de la comunicación previa de la actividad o la apertura, en su caso, a aquellos **contribuyentes que inicien actividades empresariales o comerciales de nueva implantación**, en locales cuyo valor catastral no supere los 225.000 euros, e impulsadas por nuevos emprendedores bajo la supervisión y previo informe favorable de Getxolan. Durante el primer año se aplicará una reducción del 75% sobre la tarifa general correspondiente. Durante el segundo año la reducción será del 50% sobre la tarifa general correspondiente.<br>3. Tarifa reducida aplicable a aquellos **sujetos pasivos que tengan la condición de titulares de familia numerosa** de acuerdo con la legislación vigente, cuando la renta familiar estandarizada sea igual o inferior a 40.000 euros. Esta reducción de tarifa se aplicará exclusivamente a la vivienda habitual de la familia numerosa, para lo cual todos los miembros de la misma deberán estar empadronados en dicho inmueble.<br>Para conocer los requisitos de aplicación de las tarifas reducidas, debe consultarse la Ordenanza Fiscal. |

**Kontrol Kodea**
Código de Control

**GEF-GET-ALCAN-01-DN.506 //**

| **ZERGALDIA**<br>**Noizero ordaindu behar da tasa?** | **PERÍODO IMPOSITIVO**<br>**¿Cada cuánto se exige el pago de la tasa?** |
|---|---|
| Tasa kobratzeko kudeaketa Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak egiten du, eta tasa 90 egun naturaleko epeetan fakturatzen du, gutxi gorabehera. | La gestión del cobro de la Tasa la realiza el Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia, facturando la tasa en periodos de aproximadamente 90 días naturales. |
| Partzuergoak emandako ordainketa-agiria jasotzen den unean ordainduko da tasa. | El pago de la Tasa se realizará en el momento de recibir el documento de pago emitido por el Consorcio. |
| **TASAREN MENDE EZ EGOTEA ETA SALBUESPENAK**<br>**Tasa noiz ez da eskatzen?** | **NO SUJECIÓN Y EXENCIÓN**<br>**¿Cuándo no se exige la tasa?** |
| Zerga-araudiak ez du aurreikusten estolderiagatiko tasari ez atxikitzeko edo salbuesteko kasurik. | La normativa tributaria no contempla supuestos de No Sujeción o Exención en la Tasa de Alcantarillado. |